

**MESA, MANUFACTURAS ELÉCTRICOS SAUREN 75. URTEURRENA**  
**75 ANIVERSARIO DE MESA, MANUFACTURAS ELÉCTRICAS SAU**

2022-11-18 Mungia 18-11-2022

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburua, Schneider-en presidente, MESAREN arduradun eta kideok, zorionak eta eskerrik asko zuen gonbidapenagatik!

Zuen enpresa eta proiektuak bertatik bertara ezagutzeko eman diguzuen aukera eskertzen dizuegu.

Aurten 75 urteko ibilbidea bete duzue. Urteurren honetan egindako bidea azpimarratu duzue eta, horrekin batera, etorkizuneko ikuspegia ere partekatu duzue.

Berrikuntza, nazioartekotzea eta lehiakortasuna dira zuen lehentasunak eta ardatzak hazten eta enplegua sortzen jarraitzeko.

Zuen proiektuak energia eskuratzea eta teknologia digitala erabiltzea uztartzen ditu. Beraz, industriari eta gure gizartea murgilduta dauden trantsizio globalei erantzungo die.

Deskarbonizazioarekin, ekonomia zirkularrarekin eta eraginkortasun energetikoarekin duzuen konpromisoa ere aitortzen dugu.

Arlo hauetan, Nazio Batuen 2030 Agenda eta jasangarritasunaren helburuak kontutan hartuz, egiten duzue lana. Bat gatoz, guretzako ere energiarako eta teknologia digitalerako sarbidea erraztea lehen mailako Herri Helburua da.

Esta empresa, y el proyecto de futuro que hoy hemos conocido, es una referencia en el ámbito de los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas. Compartimos este marco de referencia y el compromiso con la Agenda 2030.

Compartimos la respuesta a la doble transición verde y digital. Vamos a necesitar un gran impulso para responder a los objetivos de reducción de gases de efecto invernadero, descarbonización, energía circular y eficiencia energética. Y también proyectos que incorporen la tecnología digital en todas las áreas de actividad económica. En este sentido, MESA-Schneider es una empresa pionera e innovadora en la doble transición del tejido empresarial y la sociedad.

El Informe de competitividad de Orkestra señala, precisamente, los retos de la sostenibilidad y la digitalización como prioridades para la economía vasca en esta época de incertidumbre.

Trabajáis, además, desde la dimensión global, impulsando la internacionalización de vuestros proyectos y de las empresas con las que colaboráis y a las que prestáis servicio.

Zuen ekarpenak enpresen kudeaketa osorik eraldatzen laguntzen du, fase guztietan konponbideak eskainiz, diseinutik hasi eta fabrikaziora eta mantentze-lanetara iritsi arte.

Urte guzti hauetan erakutsitako konpromisoa eta eraldaketarako gaitasuna aitortzen dizuegu.

Transición verde, Transición digital, Compromiso con el crecimiento sostenible, Internacionalización son los pilares de vuestra empresa. Os agradecemos la oportunidad de compartir estos 75 primeros años, así como la ambición de ayudar a dar respuestas a los retos de futuro de nuestra economía y de la sociedad vasca.

Zorionak eta urte askoetarako!